

FAGOR CNA GROUP ENPRESARI BURUZ ARRASATEKO EH BILDUREN OHARRA

Arrasateko EH BILDU oso kezkatuta dago Fagor CNA enpresa taldearen egoerari buruzko albisteez. Abenduan ere salatu genuen bezala, Euskal Herriak eta Debagoienak bizi duten desindustrializazioak erabaki sendo eta konpartituak behar ditu. Lanpostuen defentsa erdigunean jarriz, Eusko Jaurlaritzari eskatu genion inplikazio zuzena izateko Fagor CNA Group auzian.

Hilabeteak igaro dira langileek salatu zutenetik enpresaren gardentasun falta eta etorkizunerako plan sendorik eza. Garai hartan Eusko Jaurlaritzak eta bereziki Arantza Tapiak Cataren jarduna ondo baloratu zuten, esaterako zenbaki gorri gehiago egongo ez zela esanez.

Zoritxarrez denborak arrazoia eman die langileei. Aurre-konkurtoa eskatzeak, sindikatuen salaketak etorkizuneko plan sendo baten faltak eta 30 langileren kaleratze asmoek egoera beltzena agerrarazten dute.

Arrasateko EH BILDUK salatu nahi du Arantza Tapia eta Eusko Jaurlaritzaren jarduna, onberegi jokatzeko baitute berme sendorik aurkezten ez duen enpresa zuzendaritzarekin. Arrasateko Alkateari berriz elkarlana eskaintzen eta eskatzen diogu bitartean, komunikazio zuzenarekin batera, gaiak herriarekiko duen garrantziagatik. Amaitzeko langileei gure elkartasun eta babes, abenduan esan genuen moduen euren esanetara jartzen baikara ezein laguntzarako. Kaleratzeen aurkako borrokan eta enplegu industrial eta garapen etorkizun baten alde Arrasateko EH BILDU hor egongo da.